

## Konpetentziak

*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-05-24: 2.

Orain hamasei urte, 1978an, Espainiako legez nagusitu ginen hauteskunde bidez gure Estatutuaz. Halere, honek barruan zituen eskubideetatik 54 falta zaizkigu jasotzeko oraindik. Konpetentzi-metroak zerbait esan nahi badu, azken zazpi urtetan gure eskubideen tantatako iturria itxita eduki digutenak sozialistak, guk Eusko Jaurlaritzan partaide bezala sartu eta eduki ditugun PSOE-EEkoak, izan dira. Super demokratek postnazionalistei hau egitea ez da ulertzekoa. Frankismoaren ildotik datozen Partido Popularrekoak izan balira, ez litzake harrigarri, baina gerra eta gerrondo luze gaiztoa, eskarmentukoa!, elkarrekin ia mende erdi batean jasan ditugunetatik, PSOEtik, ezin zen hau espero. Baina egin gorria da. Abertzale bezala, Joseba Zubia gora eta behera bere maletarekin azken urte honetan ikusten dudanean laido handia senditzen dut. Herri osoa sentitzen dut laidotua. Zer darama eta zer dakar gure herriko ordezkari gazteak Madril-Gasteiz arteko kaxa horretan, uda eta negu, alferrik galtzen ez denik, noizean behin politikazko mirari ustelak indar berriz prentsara irteteko gai diren promesa ustel horiek? Oraingoan zortzi dira, diotenez, Madrilek Gasteizi pasatzeko erregali gisa eskaintzen diguten hitzarmena. Eta esaten digute onak bagara, "portar bien", egia bihurtuko direla gainontzeko batzuk. Nolatan umiliazio hau jasan?! Eta honez gain, egun hauetakoa bakarrik aipatzeko, erdeldun huts den gure arteko bat Ararteko izendatzeko dudamudan daude abertzale batzuk! Lapurreta ageria, ustelkeriaren kiratsa, zabaldu dute sozialista internazionalak gu, abertzaleak; formolez anestesiatu nahian! Eta geuk, alderdiak alderdi herri bezala, zer!?